

**CHARLES HOLMES ETA PERGAMOKO
BITXIAK**

Mikel Muñoz Oreja, 14 urte
Donostia

I Hasiara

Sir Charles jaunaren etxea ez zen oso handia; Berlineko mendebaldean zegoen apartamentu alokatu horietako bat zen, bakartia eta lasaia. Charles jauna bakarrik bizi zen eta familia Londresen zeukan. Zientzialaria izateaz gain, detekibe pribatua ere bazen eta Berlin Mendebaldeko poliziarentzat egiten zuen lan.

Neguko goiz argitsu bat zen eta Gabonak hurbiltzen ari ziren. Igande hartan, Sir Charles egunkariko gurutzegrama bat egiten ari zen, ateko txirrinak bere pentsamenduetatik atera zuenean.

–Sartu! Irekita dago!

–Sir Charles Holmes!

–Bai neu naiz, baina... nor zara zu? –ateaz bestalde, postariz jantzitako 30 urteko gazte bat zegoen, eguneroko Aldberten orde. Altua eta

argala zen. ile motz beltzekoa eta ziurrenik erre-tzailea, eztulean nabari zitekeenez.

–James Perry naiz, postaria. Aldbert ordezkazten dut. Gaixorik omen dago.

–James Perry? Hemengoa al zara?

–Ez, jauna. Oxfordekoa naiz, Ingalaterrakoa.

–Ni Londresekoa naiz. Tira, pozten naiz Ingalaterrako jendea hemen ikusteaz. Baina aurkezpenak alde batera utzita, zer dakarzu?

–Zer? Ahhh... barkatu, jauna, armairu horri begira ari nintzaion. Ba, bi gutun dituzu, jauna. Bata Otto sarjentuak eman dit eta bestea atzerri-tik dator, Londresetik, hain zuzen ere.

–Londresetik? Tira, orduan berri onak izango dira.

–Horrela izan dadila, jauna. Egun on –eta bere gurditxoa hartuta, etorri zen leku beretik alde egin zuen.

“Tipo bitxia eta oso kuxkuxeroa benetan. Hain apartamentu itsusia al daukat, ba? Horrelako begiradak...” pentsatu zuen Holmesek, postari haren oin pausoak eskaileretan behera entzuten zituen bitartean.

Bi gutun zeuzkan zain. Lehenengo, Otto jaunaren gutuna hartu zuen eskuetan. Otto Berlin mendebaldeko poliziako sarjentuetako bat zen. Baxua eta lodia zen, despistatua eta oso txantxazalea, lanetik kanpo, hori bai. Holmesekin harreman handia zuen eta kasu bitxiren bat zutenean

departamentuan, sarjentuak Holmesengana jozten zuen laguntza eske. Azken aldian, kontu hori asko errepikatu zen Berlinen zeuden arazoengatik. Garai hura –1986- gogorra zen eta poliziak lan handia zuen harresiaren kontuengatik: ihesaldiak, erasoak, matxinadak... Egia esan, azkenean, arazo gehienak Holmesen esku zeuden.

Gutuna kartazal lodi batean sartuta zegoen, poliziaren zigiluz beteta. Segundo batzuetan begira gelditu ondoren, irakurtzen hasi zen Holmes:

“Egun on, Holmes:

Aspaldiko partez idazten dizut (Je, je). Oraingoak kasu erraz bat zirudien, baina kasu zail bihurtu da. Ez dakit oroituko zaren nola duela hilabete pare bat edo, Pergamoko museo-ko hiru harribitxi indiar lapurtu zituzten. Nahaste guztiak orduantxe hasi ziren. Kasu horren buru izendatu ninduten, gaizkileak harrapatzeko hiru hilabete luze aurrean nituela. Kontuak erraza zirudien, baina oso aztarna gutxi zeuden eta, hilabeteren ondoren, mota guztietako proba eta azterketak egin eta gero, kasua bertan behera uztera gindoazenean, hain zuzen ere, Hans poliziak esan zidan hiru lapur ikusi zituela harribitxi horrekin. Hans etxe abandonatu baten inguruko ikerketa egiten ari zen, bertan harresiari erasotzeko tresnak baitzeuden, eta bat-batean lehen aipatutako hiru gaizkile haiek ikusi

zituen, baina tamalez ihes egin omen zioten. Guk ikerketa bat hasi genuen bertan, baina berehala ohartu ginen okerreko hariari jarraitu geniola, eta, azkenean, konturatu gabe, bi hilabete pasa dira eta ez dugu ezer garbirik atera hemendik. Baina gauza ez da hor bukatzen: duela egun bat, adineko emakume batek deitu zuen departamentura, bere etxe aurrean hilketa bat gertatu zela esanez. Berarekin hitz egin, eta hauxe esan digu: irailaren hogeitabosta zen eta emakumea leihotik begira ari zen, arratsero bezala. Ezustean, bere begiek pareko etxebizitzara begiratu zuten, laugarren solairura zehatz-mehatz, eta labana zorrotz bat ikusi zuen gizon baten bularrean sartzen. Horrela, beldurtuta, geuri deitu zigun eta, oso urduri, dena azaldu zigun. Korrika joan ginen helbide hartara eta hantxe aurkitu genuen hildakoa leiho ondoan etzanda, hilda.

Orain, Holmes maitea, ondoko helbide honetara lehenbailehen etortzeko eskatu nahi nizuke: Oranienstrasse 12-4.A, hilabete eskas besterik ez baitut zerbait argitzeko.

Etorriko zarelakoan, adeitasunez:

Otto German. Poliziaburua”.

Eskutitza berriro irakurri, eta datu guztiak ondo hausnartu zituen. Txamarra, bufanda eta, nola ez, bere ohartxoan koaderno hartu eta gero, Oranienstrasserantz abiatu zen Holmes.

II

Oranienstrasse Holmesen etxetik oso gertu zegoenez, oinez iritsi zen bertaraino. Atarian, poliziaren auto bat zegoen aparkatuta eta sarre-ran zegoen zaindariak berehala pasatzen utzi zion, Holmesi aurpegia ikusi zionean. Etxe zaharra zen, nahikoa utzia, eta okupaz betea.

Hirugarren solairuko eskaileratik pasatzean, adineko emakume batekin topo egin zuen Holmesek.

–Lotsagarria da benetan okupaz inguratuta bizi behar eta gainera goiko pisuan hilketa bat... Lotsagarria! –esan zuen marmarka andre hark.

Azkenean iritsi zen laugarrenera. Hor, 4.A ateari erantsita poliziaren zinta zegoen ez pasatzeko agindua ematen. Txirrina jo eta kale jantzian zegoen gizon batek ireki zion atea:

–Arratsalde on, jauna, Otto sarjentuaren aginduz etorri naiz. Sir Charles Holmes nauzu.

–Ahh, Holmes, aurrera, zure zain geunden –erantzun zion Ottoren ahotsak barrutik.

Barrura sartu, eta egongelara iritsi ziren. Bertan, Otto sarjentua zegoen beste bi poliziarekin. Gela osoa hankaz gora zegoen, borroka baten ondoren bezala, eta gorpua leihoaren aldamenean zegoen, gutunak esan bezala.

–Ongi etorri gertaeraren lekura, Holmes. Pozten naiz zu hemen egoteaz, benetan. Bi hauek Arthur eta Fritz dira, nire laguntzaileak,

eta horko hura –esan zuen, atea ireki zion gizonari begiratu– Ernest jauna da, forensea.

–Pozten naiz –erantzun zion Ernest jaunak.

–Lehenbailehen hasi behar dugu lanean –moztu zuen Ottok– hilabete besterik ez dugu eta gauzak oso gaizki daude. Baraz, utzi aurkezpenak alde batera eta kontzentratu gertaeretan. Guk polizia-fitxa hauek betetzen ditugun bitartean, zuk Charles, azertu gela eta gorpua, ea zer-bait berezirik aurkitzen duzun.

Hala egin zuen gure lagunak. Betaurrekoak jantzi, lupa txiki bat eta koadernotxoa hartu eta bazter guztiak miatzen hasi zen. Ez zuen gauza handirik ikusi, ordurarte: zenbait liburu, boligrafo eta arkatz batzuk... Etxe hark bi logela txiki, komuna, sukaldea eta egongela zituen. Orduerdi pasatxo edo, gauzak aztertzen eta ohartxoak hartzen egon ondoren, Sir Charlesek honela moztu zituen bere lankideak haien eztabaida politikotik:

–Jaunok, ezer gutxi ateratzea lortu dut, baina baliagarria izatea espero dut. Seguruenik, zuek ikusitako gauzak dira, baina, tira. Lehenengo, esan dezaket hemen lau pertsona bizi zirela. Hori argi eta garbi ikusten da hautsontzian dauden zigarro kopuruengatik.

–Baina hori zorakeria da! Zigarro batzuegatik hori jakitea –sartu zen sarjentua.

–Barkatu, baina hala da, Otto. Baina ideia hori ez dut hortik bakarrik atera, ezta gutxiago ere. Hasieran, plater eta edalontzi kopurua zenbatu ditut: zortzi plater eta sei edalontzi daude. Sardeska eta labanek ere hori diote eta, bestela, konta itzazu. Gainera, lau ohe daude. Badakigu, gutxienez, emakumeren bat badabilela honen guztiaren atzean, makillaje arrastoak eta konpresa bat baitaude komunean, besteak beste. Ziur esango dizuet gaizkileak hemen mendebaldean daudela, harresiari esker. Gorpuari dagokionez, berriz, esan daiteke nahikoa aberatsa zela. Patriketan baliozko ezer ez dut aurkitu, harresiaren mapa bat izan ezik.

–Bai, hori guztia guk ere badakigu eta mapa hori ere aztertuta geneukan.

–Ba uste dut ez dagoela beste ezer interesgarririk.

–Orduan, hoberena pareko etxeko emakumearekin hitz egitea izango da.

Denek buruarekin baieztatu eta 11. atarira abiatu ziren. Aurreko etxebizitza hori zertxobait garbiago eta berrituago zegoen. Igogailua zueñez, 4. solairura eramán zituen gizonak, eta txirrriña jo bezain laster, adineko emakume bat atera zitzaien. Laurogei urte inguru izango zituen eta oso zaharkituta zuen aurpegia. Etxea oso estilo zaharrean zegoen hornituta eta edonon zeuden Hitlerren argazkiak.

–Barkatu bazkaltzeko garaian etortzeagatik, baina hala izan da –hasi zen Otto-, hau nire lan-kide eta laguntzaile profesionala da, Charles Holmes jauna, –emakumeak, Sophie izenarekin aurkeztutako hark, bi musu eman zizkidan masailetan–. Beste hau forensea da, Ernest jauna –eta andre hark harrera berdina egin zion Ernest jaunari–. Eta neure burua aurkezteko beharrik ez dudala uste dut, lehendik ere elkar ezagutzen baitugu. –esan zuen Ottok, bi poliziak kontuan hartu gabe.

Barrura sartu eta kafea ateratzen zigun bitartean, kritika batzuk egin genituen Sophieren bizkar. Laster hasi zen hura hizketan:

–Orain eroso gaudenez, hasi nahi duzuen galdetzen, horretarako etorriko baitzineten.

–Bai, hala da, andrea –erantzun zion Charles jaunak–. Nik galdera batzuk egin nahiko nizkizuke.

–Nahi dituzun guztiak.

–Lehenengo eta behin, hilketa gertatu zeneko unea kontatzea nahiko nuke, zeure hitzekin eta xehetasun guztiekin.

–Ba, kontua duela bizpahiru egun hasi zen, ez dut oso ondo gogoratzen, baina arratseko zortzirak aldera leihora atera nintzen, egunero bezala.

–Jakin al dezaket zergatik ateratzen zaren egunero leihora zortzirak aldera ?

–Bai, nola ez? Tontakeria bat irudituko zaizu, baina duela 40 urte Hitler jauna pasatu zen hemendik desfile batean, eta hain guapo zegoen... orain bere zain bezala geratzen naiz leihohan, edo, agian, momentu hori gogoratzeko ateratzen naiz. Neuk ere ez dakit.

–Bitxia benetan.

–Bai; ba, egun hartan, leihora ateratzerakoan, trafikoari begira nintzen; izan ere, automobil beltz zaratatsu bat pasatu zen, Hitlerrena bezalako. –Gure artean begirada batzuk gurutzatu genituen: “erotuta dago, edo zer” esanez bezala. Hala eta guztiz ere, emakumeak bere kontakizunarekin aurrera jarraitu zuen, hunkituta noizbehinka-. Hain kotxe ederrik ez dut inoiz ikusi. Eta horrela nire pentsamenduetan sartuta nengoela, nire ezkerreko begiak mugimendu zalapartatsu bati erreparatu zion. Eta hori gertatzean, badakizue, ezin duzu gehiago eutsi eta bi begiek begiratzen dute alde berera. Eta orduantxe gertatu zen behar ez zuena. Gizon baten bularra ikus zitekeen argi eta garbi eta nola labana bat sartzen zion bertan beste gizon batek. Erasotutako gizonak kortinari gogor heldu, bere aurpegiko adierazpenetan ikus zitekeenez, zerbait oihukatu, eta lurrera erori zen. Gero, hiltzailea leihora hurbildu, kalera begiratu zuen alde batera eta bestera, eta kortina ondo itxi zuen, gelaren ikuspegi bakarra itxiz. Baina korti-

nak itxi baino lehen, ondo asko konturatu nintzen beste norbait zegoela gela hartan. Ezin sinetsizko gauza bat izan zen. Beldurtuta geratu nintzen guztiagatik eta, hantxe pixka bat egon ondoren, poliziari deitu nion.

–Tira, horko gauza gehienak bagenekizkien, andrea, baina deskribatuko al zeniguke hitzailearen edo konplize horietako batzuen itxura? –galdetu zion Holmesek.

–Uste dut ulertuko didazula esaten badizut pareko leiho hori oso urruti dagoela –eta pareko eraikineko laugarren solairuko leihoa seinlatu zuen.

–Bai, ulertzen dizut, baina zertxobait: janzkera mota, tamaina...

–Ba uste dut... bai. Hitzaillea altua eta argala zen eta kamiseta gorri batekin zegoen. Eta esango nuke atzean zeudenetako bat edo bi trajearekin zihoazela, edo peto urdin batekin bezala.

–Primeran, andrea! –oihukatu zuen Holmesek. –Horrelako datuak oso baliagarriak izaten dira ikerketetan.

–Beste zerbait esan diezagukezu? Aztarnaren bat edo ezaugarriren bat... –galdetu zion Ottok

–Ba, egia esan, zuek poliziakoak zaretenez, ezin izango zenidakete elkarriketa bat lortu her Führer-ekin?

–Tira, andrea, mesedez, gu lanean ari gara... –esan zion Ernest jaunak.

Ernest jauna oso langilea zen. Isila eta urduria, baina oso arduratsua. Horrelako tontakeriengatik halako galdeketa bat moztea jasanezina zen beraren ustez.

–Beharbada, pasatu egin naiz...

–Bai –erantzun zion haserre forenseak.

–E! Ernest, lasai. –moztu zuen beldurrez Ottok haserraldi hura.

–Ba, andrea, gu bagoaz –esanez agurtu zuen Holmesek Sofi andrea–. Kontuan hartu telefono honetara deitu behar duzula, zerbait gogoratzen baduzu –eta txarteltxo eman, eta denek alde egin zuten etxe hartatik. Ernest zertxobait lotsatuta bere jarrerarengatik eta besteak harrিতuta bere izaera berri harengatik.

Sarreran agur esan, eta bakoitzak bere etxera alde egin zuen, gertaerak txukun burmuinean jartzen.

III Gizon misteriotsua

Gure detektibearen etxera iritsi zenerako arratsa zen eta “snapp” basotxo baten ondoan goiz hartako datu berri bati buruz pentsatzen aritu zen.

“Etxe hartara iritsi nintzenean usainak harritu ninduen. Tabakoaz gainera, bazegoen “snapp” usain ikaragarria hildakoaren inguruan eta sukaldean”.

Snappa Alemaniako edari tipikoa da, graduazio handikoa, Holmesek ia arratsaldero hartzen zuena.

“Eta orain hona etorri eta honekin konparatzean, argi eta garbi dago “snapp” asko edaten zutela. Hala izan behar du. Baina harrigarriena horrelako botilarik sukaldean ez aurkitzea izan da. Eta hildakoaren hatsak usain hori ez bazuen, nola da posible? Agian... bai, agian, snapp fabricaren batean egiten zuen lan”.

“Bai, horregatik arropak eta eskuek bakarrik usaintzen zuten horrela”.

Eta horrelaxe jarraitu zuen Sir Charles Holmesek pentsatu eta pentsatu, gaueko hamaketan ohera joan zen arte.

Hurrengo goizean, Albert etorri zen postarekin. Sendatu zela esan, egun onak eman, eta alde egin zuen presaz.

Gutun bat ekarri zuen, nola ez, poliziarena. Hauxe zioen:

“Egun on berriz ere, Holmes maitea:

Berri garrantzitsu bati buruz idazten dizut gaur. Egiaztatu dugu hildakoaren polizia txostena, eta hildakoa Richer Hans da. Hiru aldiz atxilotu dute eta bitan egon da kartzelan, batean urtebetez. Gauza baliotsuak lapurtu ditu, besteak beste, banku bat, eta lau pertsona hil ditu. Askotan, gaizkile askoren buru izan da, eta lanbide asko izan ditu edo zituen bere bizitza osoan zehar. Gure kabuz jarraituko dugu ikerketa. Zerbait berria ikusten baduzu idatzi. Zorte on!”

Otto German, poliziaburua

Horrela, ordu erdi geroago, kalean zegoen Holmes jauna, ikertzera joateko prest. Bere lehenengo asmoa “snapp” fabrika ezagunenera joatea zen, ea hildakoari edo hiltzaileari buruz zer-bait asmatzen zuen bertan. Berehala zalgurdi bati deitu eta fabrika hartara joan zen.

Oso lantegi handia zen, eta jende askok egiten zuenez han lan, aztarnaren bat ateratzeko oso aukera gutxi zuela ikusi zuen. Oso azkar iritsi zen enpresa hartako zuzendariordearengana, zuzendaria bilera batean baitzegoen, eta honela esan zion zuzendariordeak Holmesek dena kontatu ondoren:

–Berehala emango dizut erantzuna. Guk helbidea idatzita daukagu langile guztien fitxetan. Gainera, poliziari laguntzeko bada, pozik bilatuko dizkizut nik neuk datuak. Hara, hementxe dago... ez, hemen ez du Richer Hans izeneko inork egiten lan. Sentitzen dut.

–Eta, agian, helbidearen arabera bilatzen baduzu; beharbada, hemengo norbait han bizi da. Konplizeren bat edo...

–Bai, oraintxe bertan. Zein da helbidea ?

–Oranienstrasse 12- 4.A

–Ea ba... bai ! Hementxe dago ! Norbait bizi da etxe horretan. Sam Horrens, “snapp”aren garbiketara prozesuaren arduraduna.

–Hitz egin al dezaket berarekin?

–Noski, jauna.

Eta bozgorailuetatik berari deitu eta berehala Sam agertu zen gelan. Buzo urdin batekin zihonan jantzita. Honela hasi zen Charles jauna:

–Egun on, Sam. Charles Holmes naiz eta jakin nahiko nuke orain non bizi zaren. Zure etxean ez behintzat. Hilketari bat gertatu dela esan didate

–Baina zer da hau, galdeketa pribatu bat, ala zer?

–Ba, agian, bai. Eta okerragoa izan daiteke, galderak erantzuten ez badituzu. Komisariara eramango zaitudalako.

–Eeeee... zer nahi duzu?

–Jakin nahi dut ea non bizi zaren orain

–Snikkel kaleko etxebizitza batean.

–Ongi, eta zerbait ba al dakizu zure lehengo apartamentuko hilketari buruz ?

–Hilketari...? Ba... ez, ez.

–Esan egia, Sam.

–Benetan, egia diot.

–Segi! Baina gezurra esan didazula ikusten badut, okerragoa izango da.

“Benetan susmagarria zen tipo hori” pentsatu zuen Holmesek bere artean, fabrika hartatik atera zenean. “Sam, Sam, harrapatuko zaitut, bai”.

Eta bat-batean hantxe ikusi zuen Sam beste batekin hitz egiten, ondoko kalekkan. Gizon

bizardun eta baxu samar batekin. Une hartan, Sam ari zen hizketan, eta zerbait larria kontatzen ari zitzaiola zirudien, bere gorputzaren keinuengatik.

Horrela, bost minutu baino ez zituen itxaron behar izan Holmesek Samek hizketan bukatu eta beste tipoak kalekka hartatik alde egin zuen arte. Gure Holmesek, nola ez, beste gizonari jarraitu zion. Egun osoan zehar gauza bitxiak baino ez zituen egin tipo misteriotsu hark, eta hiriko txoko guztietara eramane zuten Holmes, hura betiere jarraika zihoakiola konturatu gabe.

Hasieran, “snapp” fabrikari itsasita zegoen harresi zatia aztertu eta neurtu zuten Holmesek, zenbait datu paper zati batean idatziz. Gero, denda gune bateko “Self-service” batean saltxitxa eta garagardo bat hartu, eta poliziaren cuartel baten ondoan pixka bat itxoin eta gero, policia bat azaldu zitzaion eta zerbait esan zion oso azkar, eta alde egin zuen barrura. Hala ere, Holmes oso gertu zegoenez hitz batzuk ulertu zituen: bi polizia bakarrik guardia egiten... gaueko hamabiak... sokak eramane. Holmesen aurpegiak oso irribarre maltzurra jarri zuen, elkarriketa hura primeran ulertuko balu bezala.

Baina gizonaren ibilaldia ez zen hantxe bukatu. Postetxeraino jarraitu eta barrura sartu zen; bulego bateko atea ireki, sartu, eta handik ordu laurdenera edo bertatik alde egin zuen, pozik.

Eta, horrela, gizona beste hiriko hainbat lekutara joan zen, azkenik etxean sartu zen arte.

IV Azken prestaketak

Biharamunean, Holmesek ideia guztiak lotu zituen, azalpen bakarrera iritsi zen arte. Egun horrek primerakoa izan behar zuen, zehatza eta azkarra. Minutu bakar batez atzeratzen bazen, bi egun haietan egindako lan gogorak ez zuen ezertarako balioko.

Honezkero, urduri zegoen; goizeko hamarrak ziren eta Aldbert ez zen iritsi. Baina galdera horren erantzuna berehala iritsi zitzaion. Lehen-go eguneko James Perry hori azaldu zitzaion.

–Primeran, falta zitzaiguna. Zergatik ez da Aldbert etorri?

–Ba... egia esan, gaur goizean hilda agertu da bere etxean, eta ni bidali naute.

–Zeeeeer??

–Ba hori, jauna.

–Aldbert hilda? Nola?

–Dirudienez, hilketa izan da, baina ez dakit.

–Hilketa?? Ezin dut ulertu inork horrelako gizon bat hiltzeko gogoa izatea. Animalia hutsak dira. Arimarik gabeak!

–Bai, bai, jauna.

–Ez zinen zu izango, ezta?

–Ni? Ni? Zer? Nola ni?

–Tira, motel... txantxa bat besterik ez zen.

–A, zera, hemen... duzu posta. Agur.

–Bai, bai, agur.

Eta Holmesek betikoa pentsatu zuen: «Zer tipo bitxia ».

Arratsalde hartan, gauza guztiak oso azkar egin behar izan zituen; goizean Aldberten hilketaren lekura joan zelako, eta, ikerketa batzuk egin ondoren, seiak aldera, poliziarengana joan zen Ottorekin hitz egitera. Nola ez, hura bere idazmahaiian aurkitu zuen, paper batzuk aztertzen. Elkarrizketa hasi eta bi minutura, honelako oihuak entzuten ziren:

–Zer? Bukatu duzula ikerketa? Eta bi egunetan jakin duzula nor den lapurra eta nor hiltzailea?

–hasi zen Otto, harrituta.

–Bai. Eta gaur gauera arte dugu denbora atxiloketa ondo antolatzeko, bestela ihes egingo digute geure muturren aurrean.

–Egia baldin bada, jenio bat zara, Holmes! Nik hilabete behar izan dut, eta zuk bi egunetan plaf! Listo, bukatu duzu.

–Baina oraindik ez zaitez erabat poztu, gauza asko falta dira eta.

–Berdin dio, Holmes lortuko dugu! Tira, hasi guztia kontatzen.

–Ez, ez. Gauza ez da horrela. Ez dut inork jakiterik nahi nor den hiltzailea, beraz, atxiloketa arte ezin diot inori ezertxo ere esan. Egin behar duzun gauza bakarra nire aginduak betetzea da.

Beti besteei aginduak ematen, ondo etorriko zaizu aginduak jasotzea.

–Zuk nahi baduzu...

–Bai, beraz, gaueko hamaika eta erdietan “snapp” fabrikaren parean nahi zaitut bi polizia-rekin. Kale jantzian joan zaitetzte, eta ni iritsi arte ezkutuan ibili. Ezin zaituzte inork ikusi.

–Primeran. Hamaika eta erdietan, hantxe egongo gara.

Hori egin ondoren, zenbait gauza prestatu, eta dena ondo erreparasatu zuen Holmesek.

Dena prest zegoen.

Etxean egon zen oso urduri, “snapp” tragotxoak edaten. Dena bere usaimenaren esku zegoen. Bere usaimenak huts egiten bazion, dena pikutara joango zen, eta lapurrek ihes egingo zuten.

Une hartantxe, bere egongelako erlojuak gaueko hamaikak jo zituenean, bere pistolako balak kargatu, txamarran sartu, eta, eskaileretan beheara abiatu, zalgurdi bat hartu zuen “snapp” fabrikaraino. Zalgurdian zihoaneko santsazioa oso gustuko izan zuen Charles Holmesek. Baina ez zen egun normal batean zalgurdian ibiltzea bezala; zirrara egiten ziona kasu hura eramateko izan zuen azkartasuna eta erraztasuna izan ziren. Bere buruari mota guztietako loreak bota zizkion, berriz ere; zalgurditik jaistean egingo zuena erreparasatu zuen, eta esku-joko batzuk egin zituen, ez aspertzeko. Eta, bat-bate-

an, zalgurdia geratu egin zen. Horrek adierazten zion iritsi zela geltokira.

Gurdizainari ordaindu eta zalgurdiak alde egin zuenean, ingurura begiratu zuen Holmesek. Han ez zegoen inor. Eskatu bezala, “snapp” fabrika baino bi kale aurrerago jaitsi zen eta, hiriko parte hura fabrikagune bat zenez, erdialdetik baztertuxeago zegoen eta isiltasuna zen nagusi. Poliki-poliki, fabrikarantz hurbilduz joan zen Holmes, bidean, pare bat mozkor eta kale garbitzaile bat ikusi zituelarik. Aldamenean zeukan taberna gurutzatu, izkinari buelta eman, eta hantxe zegoen atxiloketak gertatu behar zuen lekua eta hantxe zeuden, zakarrontzi baten atxean, Otto eta beste bi gizon.

V Bukaera

Haiekin elkartu zenerako, denak izerditan zeuden. Oso gutxi hitz egin zuten haien artean, Holmesek zeregin batzuk zituelako eta Ottok bazekielako ez zuela ezer galdetu behar ordua iritsi arte. Hamabiak hamar gutxitan, Charles jauna Ottorengana hurbildu eta honela hasi zitzaion.

–Otto, badakizu neure metodoak, gehienetan, oso zentzundunak direla, ezta? –Ottok buruarekin baietz esan zuen. Ba, kasu honetan erabili ditudanak erdi intuiziozkoak eta erdi logikazkoak izan dira. Egia esan, nire usaimenak asko lagundu

dit kasu hau aurrera ateratzeko. Gaur gauean atxilotuko ditugu hitzaile eta lapurrak, baina nire aginduak zehatz-mehatz beteko dituzula agindu behar didazu. Agian ez dira poliziaren metodoak izango, baina nitaz fiatu behar duzu.

–Tira, zutaz fio naiz, baina ez dadila astakeriaren bat izan, e?

–Zu, lasai. Beraz, nire kalkuluen arabera gaizkileak fabrika barruan daude eta Pergamoko bitxiak ere bai. Zerbait gaizki irteten bada, bitxiak ekialdean agertuko dira eta orduan beste herrialde batera eraman ahal izango dituzte. Beraz, mendebaldean dauden bitartean, bitxiak salbu daude.

“Leiho horiek ikusten dituzu?” esaten ari zen bitartean, Holmesek “snapp” fabrikako leiho batzuk seinالاتu zituen behatzaz.

–Ikusten duzunez, harresira ematen dute. Nire ustez, gaizkileen asmoa bitxiak leiho horietatik harresiaren bestaldera pasatzea da; horrela, beste herrialde batzuetara eraman eta han saldu ahal izateko. –Hori dena Ottori esaten zion Holmesek, bi poliziak elkarrizketatik kanpo ikusita. Charles jaunaren ustez bi txontxongilo bezala ziren haiek, behar zirenean bakarrik erabiltzeko, eta, berak zeukan mailarekin konparatuta ikasle batzuk besterik ez zirenez, horrelaxe uzten zituen Holmesek, hantxe baztertuta.

–Baina, Holmes, nola pasatuko dituzte bitxiak! Guk ezartzen dugun segurtasuna ezin hobea da. Leihotik botatzen badituzte bitxiak, soldadu hori arduratuko da beren eskarmentua haiei emateaz, eta ziur nago beste aldean ez dagoela inor. Beraz, erabat ezinezkoa da.

–Oraindik ez dira hamabiak; beraz, lasai eta, gainera, soldadu horrek ez du esperoko ordu hauetan fabrikari norbait egotea. Bestela ikusi –eta Holmesek leiho haietara seinalatu zuen. Une hartan irekitzen ari ziren leihoa, eta bi gizonen silueta ikus zitekeen itzalen artean. Holmesen aurpegian irrika eta eromen apur bat nabari ziren, eta Ottorenean eta bere laguntzailenetan, berriz, izerdia eta urduritasuna. Tentsioa izugarria zen une hartan.

–Eta orain zer? –xuxurlatu zion Ottok belarri-
ra.

–Goazen- esan eta poliki-poliki leiho azpirantz hurbiltzen joan ziren, pistola eskuetan zutela.

Soldadua zigarro bat erretzen ari zen eta ez zen ezertaz ohartu, noski. Gaizkileak maindire moduko batekin zeuden estalita, bi ziren eta poltsatxo bat zuten eskuetan. Seguruena, haiek bilatzen zebiltzan Pergamoko harribitxiak izango ziren. Eta orduan dena zitzu bizian gertatu zen. Leihoko batek poltsa airera jaurtitzeko keinua egin zuen, eta Ottoren azkartasunak, edo batek daki zerk, tiro bat botatzera eragin zion

bere pistolari, leihoko gizonetako bat lurrean botata utzirik. Eta orduan gertatu zen okerrena, harresian zegoen soldaduak tiroa entzunda azkar erreakzionatu, eta bere metrailetaz tiro egiten hasi zen leku guztietara. Harresiaz bestalde, min oihuak entzun genituen, Holmesek belarriak tapatu, eta orduan bi bala pasatu ziren haren ondotik, eta Otto eta beste polizia jo zituzten balek.

Charlesekin oihu egin zuen, laguntza eske edo isiltasun eske bezala, eta orduan isildu ziren tiro hotsak. Isiltasun handi haren artetik, min eta sufrimendu hotsak zetozen. Bala bat ikusi zuen Holmesek Ottoren sorbaldan, eta beste bat poliziaren bularrean. Malko bat atera zitzaion, eta soldaduari oihukatu zion berak poliziak zirela eta ea erotu egin ote zen horrela tirokatzeko. Bat-batean, Ottoren ahotsak horrela esan zion Holmesi, baxu-baxu:

–Segi, Holmes, bala eskas bat besterik ez da abots ahula zuen, baina argi eta garbi ulertzen zitzaion-. Segi, ni arduratuko naiz guztiaz; zu zoaz lapurra harrapatzera.

–Benetan? Lasai, laster hemen nago eta.

Eta hala izan zen, berehala Holmes lapurrarekin itzuli zen, esku batean bitxi haiek zituelarik. Horrenbesteko iskanbilarekin, polizia pila bat etorri ziren eta anbulantzia bat ere bai. Anbulantzian Otto sartu zuten, eta polizia kotxe-

an, berriz, lapurra. Ospitalerako bidean, Ottok galdera pila bat egin zizkion Holmesi.

–Holmes, nola jakin zenuen fabrikarena?

–Ba, hildakoa aztertu nuenean, oso “snapp” usain fuertea nabaritu nion, fabrikara ikertzera joan, eta etxe hartan bizi zen langile bat aurkitu nuen. Hari jarraitu nion, bere lankideak ezagutu, eta hitzorduko lekua eta orduan entzun nituen.

–Eta nor zen bigarren gaizkilea, hilda dagoe-na... Holmes, nik hil dut, ez da hala?

–Bai, baina hori zure eginbeharra zen. Gaizkilea nire postaria zen. Berari ere ikerketa-txo bat egin nion, eta konturatu nintzen. Aldbert zergatik hil zen. Beharbada, lapurretari buruz gehiegi entzungo zuen eta horregatik akabatu zuten, beste postari berri bat jarriz haren orde-z: gure lapurra, James Perry. Tamalez, orain hilda dago. James Perryk gauza bera egin zion leihoan aurkitu zenuten gizonari. Badirudi gehiegi zekien jendea gorroto zuela Perry jaunak eta horregatik hiltzen zituela.

–Lan bikaina, Holmes. Uste dut dena ulertu dudala.

–Tira, iritsi gara hospitalera, Otto. Bihar pasatuko naiz hemendik, ea zer moduz zauden, baina orain etxera noa lo pixka bat egitera. Sendatu, e...?

Eta, horrela, oso berandu iritsi zen Holmes bere apartamentura, oso nekatuta baina pozik. Pixka batean bere butakan eseri zen, gau hartako irudi tristeak gogora ekarriz.

Eta orduan eskutitz bat ikusi zuen mahai gainean. Aldbertek lehenengo egunean ekarri zion gutuna zela ikusi zuen. “Gizajoa” pentsatu zuen Holmesek bere artean, eta kartazala irekitzen hasi zenean, Holmesek erabaki zuen hurrengo egunerako utziko zuela, poliziarena bazen. Horrela zioen:

“Kaixo, Charles maitea:

Zer moduz Berlingen ? Jarraitzen al duzu zure detektibe kontu horiekin ? Berri onak dakartzizut. Esan nahi dizut nire semea jaio dela eta bera ikustera gonbidatzen zaitugula. Horregatik, Londresera etortzeko hegazkineko sarrera bat bidali dizut gutun honekin batera. Nahi duzunean etor zaitezke, baina abisatu bi egun lehenago, e? Izeba Mariek, bere sorginkeriekin jarraituz, jendeari etorkizuna irakurriz, aura ikusi eta detektibe sena duela esan du. Sherlock izena jarri diogu: Sherlock Holmes. Nik, berriz, zure antz handia duela uste dut eta detektibe bikaina izango den susmoa dut”.

Etorriko zarelakona:

Peter Holmes